



Beste emakume bat eraila Iruñean

Otra mujer asesinada en Iruñea

ASTEAZKENA, URRIAK 24

IRUÑEA 20:00etan elkarretaratzea Udal Plazan
en la Plaza del Ayuntamiento

OSTEGUNA, URRIAK 25

BILBO 19:00etan Arriagatik manifestazioa.
manifestación desde el Arriaga

DONOSTIA 19:00etan elkarretaratzea Boulebardean
concentración en el Boulebard

GASTEIZ 19:30etan elkarretaratzea Andra Mari Zurian
concentración en la Plaza de la Virgen Blanca



Iruñean elkarretaratzea egingo dute gaur (Udal plaza, 20:00) eta Bilbon (Arriaga, 19:00), Donostian (Bulebar, 19:00) eta Gasteizen (Andra Mari Zuria, 19:30) bihar.

Hauxe da [Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren](#) oharra:

Beste erailketa matxista baten berri izan genuen atzo, Yolanda Jaén Gomez, 50 urteko emakumea erail berri du bere bikoteak Iruñean, bere etxeari su emanda. Zazpigarrena dugu aurten Euskal Herrian: gogoan zaituztegu!

Joan den asteartean jaso genuen berria, gizon batek, Iruñeko kale nagusian, bere etxeari su

eman eta zauritu askoren artean, bere bikotekidea, erredura larriekin Zaragozako Miguel Servet ospitalera bidali zuen. Aste bete ospitalean egon eta gero, 50 urteko emakumea, Zaragozako ospitalean hil egin da. Oraingoan emakumearen bizitza ez ezik, indarkeria matxistak zaurituak izan diren beste bizilagunen bizitzak ere arriskuan jarri ditu. Hau gertatu behar al da, denon arazoa dela azaleratzeko?

Gizonak aurrekariak ditu genero indarkeriagatik, eta emakumearekiko urruntze agindu bat ere bazuen. Honek, beste behin ere, indarkeriaren aurkako neurrien hutsuneak azaleratzen ditu! Sistema patriarkalaren beste pieza nagusienetako bat dugun indarkeri instituzionalak, emakumeok indarkeria matxistarekiko dugun babesgunea handitzen du (Are gehiago, zapalkuntza ardatz gehiago haien gain jasan behar ditugun emakumeak), emaitza, kasu honetan, larriena izanda.

Mugimendu Feministak lan kolosala egin du indarkeria matxistari hitzak jartzen eta jendartea sentsibilizatzen. Hala zabaldu dugu emakumeon aurkako indarkeriak ez du mugarik, bizi garen sistema kapitalista patriarkalaren funtzionamenduaren ezinbesteko tresna delako, eredu honek sortzen dituen pertsonen arteko botere harremanak betikotzeko tresna. Garrantzitsua da ulertzea indarkeria matxista, bestelako biolentzia ardatz batzuekin elkarlotzen dela, arrazismoa edo klasea, kasu.

Ez dira modu isolatuan eta bakartuan ematen diren erasoak; gure sistemaren muinean erreproduzitzen den indarkeria da: kultura aparatuan, komunikabideetan, estatuan, lan merkatuan, familian edota hezkuntza sisteman. Honen aurrean, agente sozial, politiko eta instituzional guztien ardura pertsonal eta kolektiboa ezinbestekoa da. Apustu ausartak eta neurri sakonak beharrezkoak dira. Garaia da hitzetatik praktikara pasatzeko.

Emakumeen Mundu Martxatik gogor salatzen dugu Bilboko erailketa eta Irailaren 26 eta 27ean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu! Honekin batera autodefentsa feministarako deia egiten dugu, gure bizitzak direlako jokoan daudenak. Feministok erantzuteko prest gaude! Martxan jarraituko dugu, elkarrekin, borrokan denak aske izan arte!!!!

—